



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA

ERMUA HIRIKO UDALA

**DESPLAZAMENDUETARAKO BALIABIDEAK EROSTEKO ETA  
ARKITEKTURA-ERAGOZPENAK EZABATZEKO LAGUNTZAK  
EMATEA ARAUPETZEN DUEN ARAUDIA, MINUSBALIASUNEN BAT  
DUTEN EDO BIZI DIRENEKO TOKIETAN MUGITZEKO TRABA  
HANDIAK DITUZTEN PERTSONEI, EDOTA AUZOKIDE-ELKARTEEI  
ZUZENDUA**

## **SARRERA**

Gure Udalerriaren ezaugarri fisikoen ondorioz, bere izaera dela zio, biztanleen multzo handi baten higikortasunerako muga handiak dituelarik, Ermuko Udalak arkitektura-eragozpenen ezabapenerako programa bati ekin zion bere egunean hiriaren hirigintzari zegokionean eta, hala, arrapalak egitea, espaloietara heltzeko tokietan beheraguneak gauzatzea, eta jendearentzako zerbitzu berrietan igogailuak jartzea izan ziren, besteak beste, buruturiko lanetariko batzuk.

Hori guztia gorabehera, eta esku-hartze publiko hori izan zena izanik ere, gutxiegi gertatzen den jarduketa da, alor pribatuari lotuta leudekeen beste zenbaitekin osatu ezean.

Arlo honetan esku hartzeko asmoarekin sustatu da honako araudi hau, eta mugitzeko arazoren bat duten Ermuko biztanleek dauzkaten urritasunei aurre egiteko irtenbideak bilatzeari eustea litzateke beraren helburu nagusia.

## **I. ARAUDIAREN HARTZAILEAK**

### **1. artikulua**

Bai minusbaliasunen baten ondorioz, bai adinak eratorritako ibiltzeko zailtasun latzen zioz, higitzeko zailtasunen bat duten Ermuko pertsonen zuzenduta dago araudi hau.

Halaber, minusbaliasunen bat duen edo higitzeko arazo larriak dituen pertsona bat edo gehiago bizi deneko/direneko Auzokide-elkartek ere izan ahalko dira onuradun.

## **II. APLIKATZEKO EREMUA**

### **2. artikulua**

Ermua Udalerrian erroldatuta dauden pertsonen eta araudian ezarrita dauden betekizunak betetzen dituzten Auzokide-elkarteen aplikatuko zaie araudi hau.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA

ERMUA HIRIKO UDALA

### **III. LAGUNTZEN NORAINOKOA**

#### **3. artikulua**

1. Araudi honen arabera ematen diren udal laguntzak, beti ere, honako jarduketa hauek eragiten dituzten gastuei erantzutekoak izango dira:

A) Auzokide-elkarteak direnean:

1.1. Atarietan eta auzokide-elkarteetako elementu komunetan daude arkitektura-eragozpena ezabatzeak, baldin eta bertan, minusbaliotasunak dituen edo mugitzea eragozten dioten arazoak dituen edadeko bat edo zenbait bizi dela/direla egiaztatzen bada.

1.2. Auzokide-elkartearen barruko joan-etorrietarako elementuen ezarpenak, baldin eta bertan, minusbaliotasunak dituen edo mugitzea eragozten dioten arazoak dituen edadeko bat edo zenbait bizi dela/direla egiaztatzen bada.

B) Minusbaliotasunen bat edo mugitzeko arazo larriak dituzten pertsonak direnean:

1.3. Minusbaliotasuna duen pertsonak, higikortasuna erraztu edo hobetuko dioten garraiorako eta lekualdaketetarako elementuak erosteak, baldin eta trakzio mekanikoko ibilgailuak ez badira.

2. Eskatzen diren laguntzak helburu jakin baterako eta puntualak izango dira, hau da, jarduketa bat dela-eta, ezingo da laguntza bat baino gehiago jaso gutxienez 10 urte igaro bitartean.

3. Araudi honen arabera ematen diren udal laguntzak bateragarri izango dira bestelako laguntza publikoekiko, kasuan kasuko jarduketa halakorik hartzeko modukoa baldin bada.

### **IV. LAGUNTZAK EMATEKO BETEKIZUNAK**

#### **4. artikulua**

1. Laguntza hauek emateko ezinbesteko betekizunak izango dira ondoren zerrendatzen direnak:

1. Pertsona minusbaliatu baten garraiorako eta lekualdaketetarako banakako laguntzak direnean, eskatzaileak Ermua udalerrian erroldatuta egon beharko du eskaera data baino, gutxienez, sei hilabete lehenagotik, eta Bizkaiko Foru Aldundiak luzatzen duen minusbaliotasun-agiria eduki beharko du eta, higitzeko arazo larriak dituzten pertsona adinduak direlako, halakorik izan ezean, medikuaren txostenaren bidezko egiaztatpena beharko da.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA

ERMUA HIRIKO UDALA

2. Auzokide-elkarteetako eragozpenak ezabatzeko edota joan-etorrietarako elementuak ezartzeko direnean, egiaztatu egin beharko da pertsona minusbaliatu bat edo higitzeko arazoak dauzkan edadeko bat, gutxienez, bizi dela bertan.

3. Auzokide-elkarteetako eragozpenak ezabatzeko edota joan-etorrietarako elementuak ezartzeko direnean, adierazitako erroldatze-irizpidea betetzen duen/duten eta minusbaliotasuna edo higitzeko zailtasun nabaria pairatzen duen/duten pertsonaren/pertsonen izenean aurkeztu beharko dira eskaerak.

## **5. artikulua**

Laguntza hauek jasotzeko eskubidea dutela uste duten Udalerriko pertsonak edota Auzokide-elkarteek Udal Administrazioari eskatu beharko dizkiote, horretarako gauzatu den eskabide orria bete eta Erregistro Orokorrean aurkeztuz, araudiaren arabera eskatzen diren adina agiri erantsiaz eta GIZARTE-ONGIZATE SAILera zuzenduta.

## **6. artikulua**

1. Laguntza-eskaerarekin batera, izapideak eginak izan daitezen, ezinbestean aurkeztu beharko dira eskaeraren zio den egoera era frogagarrian egiaztatzen duten agiriak.

2. Honakoak izango dira agiri horiek:

a) Kasu guztietan:

2.1. Pertsona eskatzailearen ENAren fotokopia edota Auzokide-elkartearen IFK.

2.2. Eskaera egitean, indarrean dagoen azken ekitaldiari dagokion zerga-aitorpena edo, halakorik izan ezean, salbuespen-egiaztagiria.

2.3. Salbuespen kasuetan, hartutako diru-sarrera gordinen egiaztagiria.

2.4. Pertsona eskatzailearen minusbaliotasun-egiaztagiria edo, halakorik izan ezean, eta higitzeko zailtasunak dituzten pertsona adinduak izatera, diagnostikoa eta beraren ondorioak zehatz-mehatz xehatzen dituen medikuaren txostena.

b) Minusbaliotasunen bat duten pertsonen garraiorako eta lekualdaketetarako elementuak erosteko denean, a) atalean zerrendatutako agiriez gain, ondorengo hauek ere aurkeztuko dira:

2.5. Erosi nahi den elementuaren erabilpenaren komenigarritasunari buruzko mediku-txostena.

2.6. Erosi nahi den garraio-elementua erosteko kostuen bi aurrekontu.

2.7. Kontzeptu bera dela kari, har daitezkeen bestelako sarreraren aitortpena, beste Erakunde batzuei laguntza eskatu zaienetan.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA

ERMUA HIRIKO UDALA

2.8. Behin erosketa eginda, edo laguntza eskatu aurretik burutu izanez gero, jatorrizko faktura aurkeztu beharko da.

c) Auzokide-elkarteetako arkitektura-eragozpenak ezabatzea edota bertako joan-etorrietarako elementuen instalazioa denean, a) atalean zerrendatutako agiriez gain, ondorengo hauek ere aurkeztuko dira:

2.9. Eragozpenak ezabatzeko egin beharreko lanen aurrekontua, lanon helburua zein den adierazi beharko delarik bertan.

2.10. Proiektua gauzatzeko erabakia islatzen duen Auzokide-elkartearen Batzaren akta.

2.12. Egin beharreko lanen aurrekontu zehatza.

2.13. Behin lanak eginda, edota laguntza eskatu aurretik burutuak izanez gero, dagokien jatorrizko faktura aurkeztu beharko da.

3. Aipaturiko agiriak Udal Administrazioak egin ditzakeen frogantzari eta ikuskapenari lotuta daude beti ere, eta doakion pertsonari edo Elkarteari, agiritan azaltzen diren datuetatik edozein argi dezan eskatu ahal izango zaio.

## **V. ALDE BATERA UTZIAK**

1. Alde batera geratuko dira, automatikoki, goian adierazitako betekizunak betetzen ez dituzten pertsonak edota Auzokide-elkarreek aurkeztutako eskaerak.

2. Aurreko atalean eskaturiko agiriak erantsi gabe aurkezten diren eskaerak ere alde batera geratuko dira, automatikoki, errekeritu arren, legeak hutsak zuzentzeko ezarritako epeak iragandakoan.

## **VI. LAGUNTZEN PROZEDURA ETA KUDEAKETA-ARAUAK**

### **7. artikulua**

1. Garraiorako elementuak erosteari edo arkitektura-eragozpenak kentzeko lanei ekiten zaien urteko ekitaldiaren edozein unetan aurkeztu ahal izango da laguntzetarako eskaria.

2. Udal Administrazioak eskaera bakoitza ebatziko du, eta hilabeteko epean jakinaraziko dio/die doakionari/doakienei ebazpena zein den, eskaera hartzen denetik zenbatzen hasita, baldin eta aurkezten diren agiriak zuzenak badira.

3. Jakinarazpen hori hartzen dutenetik, doakionak/doakienek, legeak ezarritako epea izango dute egoki deritzoten erreklamazioa egiteko.

### **8. artikulua**



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA

ERMUA HIRIKO UDALA

1. Ematen diren laguntzen eraginkortasuna eta aplikazioa, beti ere, Gizarte-Ongizate Sailak ezarritako baremoa (1. Eranskina) aplikatuz dagozkien zenbatekoen arabera gauzatuko dira, pertsona eskatzailearen ekonomi egoerari begiratuko zaiolarik horretarako.

2. Araudi honetara bilduta dauden xedeetarako udal-laguntzaren zenbatekoa ezin izango da portzentaje edota zenbateko hauek baino handiagoa izan:

2.1. Garraiorako eta lekualdaketetarako baliabideak erosteko banakako laguntzak direnean, kostu osoaren %50 ordainduko da gehien jota, 100.000 pezeta izango delarik gehienezko kostua, eta den-dena behar bezala justifikatu ondoren.

2.2. Auzokide-elkarteetako arkitektura eragozpenak ezabatzeko laguntzak direnean, lanen kostu osoaren %25ari dagokion dirulaguntza emango da, 150.000 pezeta izango delarik gehienezko kostua, eta den-dena behar bezala justifikatu ondoren.

2.3. Auzokide-elkarteetan garraio eta joan-etorrietarako baliabideak ezartzeko laguntzak direnean, honako hauek balioetsiko dira:

Elkarte horretan, higikortasun arazoez jota dauden zenbat pertsona bizi diren; Egokitze lanen kostua;

Elementua erosteko kostua zein den.

Xede horretara zuzentzen den dirulaguntza, guztira, ezingo da, inoiz ere, 300.000 pezetatik gorakoa izan.

## **9. artikulua**

1. Udalak, deskribaturiko xedeetarako, ematen dituen dirulaguntzak, ondoren zehazten den eran hartuko dituzte pertsona interesatuek:

a) Eskaera egiten duen pertsonak, batek erabiltzeko elementuak erosteko egiten duenean, Administrazioaren esku jartzen den kontu korrontearen zenbakian sartuko da laguntza, ordainketa bakarrean eta erosketari dagokion erazko faktura aurkeztu ondoren.

b) Laguntzak, Auzokide-elkarteetan eragozpenak ezabatzeko eta garraio-elementuak ezartzeko direnean, Administrazioaren esku jartzen den kontu korrontearen zenbakian sartuko da dirulaguntza, baldin eta Elkartearen zenbakiari badagokio. Ordaintzeko era aurreko atalean xehatutakoaren modukoa izango da.

c) Erosketa edo lana dirulaguntza eman dela jakinarazi aurretik burutuz gero, ordainketa bakar batean emango zaio dirulaguntza.

## **VII. AURREKONTU-ESLEIPENA**

### **10. artikulua**

1. Araudi honetan ezarritako udal laguntzak direla-eta, Gizarte-Ongizate Sailak, urtero, xede honetarako izango den diru-partida sartuko du bere aurrekontuetan, 3132.480.03 programa funtzionalean esleituta.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA

ERMUA HIRIKO UDALA

2. Laguntzetarako eskaerak Udalean sartzen diren ordenan ebatziko dira, eta 4, 5 eta 6. artikuluetan adierazitako betekizunak betetzen dituzten guztiak izango dira onartuak. Aurrekontuetako esleipena behin agortuta aurkezten diren eskaerak, ebatzi gabe geratuko dira.

3. Urteko ekitaldirako onartzen den aurrekontua agortutakoan, ezetza emango zaie eskaerei, eta hurrengo ekitaldian aurkeztu ahalko dira, erosketak edo lanak ere, hurrengo ekitaldi horretan burutu beharko direlarik.

## **VIII. ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK**

### **11. artikulua**

Araudi honetan ezartzen diren udal laguntzak jasotzeko eskubidea ematen duten baldintzak ezkutatu direlako edo iruzur egin delako, arau-hausteak gertatuz gero, ematen den laguntza baliogabetuko da eta behar ez bezala jasotako zenbatekoak Udal Administrazioari itzuli beharko zaizkio, gerta litezkeen lege-jardueren kalterik gabe.

## **IX. XEDAPEN GEHIGARRIA**

1. Udal Administrazioak aurkezten zaizkion salbuespenezko eskaera guztiak azter eta ebatz ditzake.

2. Eskaera eragiten duen egoeran, laguntza emateko edo ukatzeko erabakia ukitzen duen edozein aldaketa gertatuz gero, laguntza eskatzen duen/duten pertsonak/pertsonak hala jakinarazi beharko dio/diote Udal Administrazioari, azken honek ondorioz jardun ahal dezan.

## **X. AZKEN XEDAPENA**

BAOn osorik argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean Araudi hau, eta hala iraungo du beraren aldakuntza edo indargabetzea erabakitzen ez den bitartean.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA

ERMUA HIRIKO UDALA

## 1. ERANSKINA:

### FAMILI UNITATEEN ERRENTAREN BAREMOA BANAKAKO LAGUNTZEN KALKULURAKO

#### FAMILI UNITATEAREN PER CAPITA ERRENTA

#### LAGUNTZAREN PORTZENTAJEA

9.009,01 €ik gora.	5%
8.408,01tik 9.009 €a bitartean	10%
7.807,01tik 8.408 €a bitartean	15%
7.206,01tik 7.807 €a bitartean	20%
6.605,01tik 7.206 €a bitartean	25%
6.004,01tik 6.605 €a bitartean	30%
5.403,01tik 6.004 €a bitartean	35%
4.802,01tik 5.403 €a bitartean	40%
4.201,01tik 4.802 €a bitartean	45%
4.201 €a arte	50%